

**2009ko URTARRILAREN 15ean LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko urtarrilaren 15ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
  - **2008ko abenduaren 11an egindako ohiko bilkura.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **2009 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaeren onespena, hala bada.**
4. **2008 ekitaldiko Kultur Astearen kitapenaren berri ematea.**
5. **Larraulgo Plan Estrategikoa 2009-2012 oinarrien onespena.**
6. **Larraulen Herri Eskola sortzeko eskaeraren onespena, hala bada.**
7. **Aprobación del Proyecto de arreglo de frontón municipal de Larraul al amparo del Real Decreto-Ley 9/2008, de 28 de noviembre, por el que se crea un Fondo Estatal de Inversión Local y un Fondo Especial del Estado para la Dinamización de la Economía y el empleo y se aprueban créditos extraordinarios para atender a su financiación.**
8. **Fakturak eta ordainketak.**
9. **Beste batzuk.**
10. **Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

**LEHENENGO PUNTUA**

***ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.***

- ▣ 2008 urteko abenduaren 11ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

**BIGARREN PUNTUA**

***ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA***

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

20/2008 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2008ko azaroaren 11ko agindua jarraituz 4.027,22 eurotako diru-laguntza eskaera egitea ebazten duena.

21/2008 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2008ko azaroaren 11ko agindua jarraituz 27.447,14 eurotako diru-laguntza eskaera egitea ebazten duena.

01/2009 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 13koa, 2009ko urtarrilaren 13ko dataz aurkeztutako 2009/02 zbk. duen faktura zerrenda onartzea, 190,14 euroko kopuruan, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

**HIRUGARREN PUNTUA**

***2009 URTERAKO UDAL ZERGA-TASEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA***

Ikusirik 2009 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2008ko abenduaren 31rarteko epea ireki zela, 5 eskaera egon direlarik

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2009 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

-Jose Angel Zumeta: SS-3090-L ibilgailu historikoa.

-M<sup>a</sup> Carmen Gurrutxaga: Ura eta zaborrak.

- Koldo Jauregui Sarasola: SS-019494 ibilgailu historikoa.
- Antonio Urbieta Lizaso: Ura eta zaborrak.
- Igor Belaunzaran Goyenechea: IBI -famili ugaria.
- Andres Aristi: IBI –Eguzki plakak.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **2008 EKITALDIKO KULTUR ASTEAREN KITAPENAREN BERRI EMATEA**

Ikusirik 2008ko azaroak 28tik 30era eta abenduaren 6tik 7ra Larraulgo Aste Kulturala egin dela bertan hainbat gastu egon direlarik. Ondorengoak izanik:

Bertsolariak ( Agirre-Arzailus)	420,00
Elduen bazkaria	180,00
Kartelak	139,00
Feriako gastuak (Pegatinak,...)	15,00

#### **Argazki Erakusketa**

-Kopiak eta Cd-ak	274,00
-------------------	--------

#### **Mus Txapelketa**

-Arkumea	74,36
----------	-------

#### **Haur merienda, pelota eta eskulanak**

-Medailak	49,50
-Janaria	44,00
-Eskulanak	197,00

#### **Talo jana**

-Urdaia-Gazta	132,64
-Artirina	35,00
-Gaztainak	145,25
-Elkartea	310,58

**GUZTIRA: 2016,53**

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- 2008ko aste kulturalako gastuen kitapena onestea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO PLAN ESTRATEGIKOA 2009-2012 OINARRIEN ONESPENA.**

Ikusirik Larraulgo Plan Estrategikoa 2009-2012 oinarrien aurkezpena egiten dela, ondorengo delarik:

## LARRAULGO PLAN ESTRATEGIKOA 2009-2012

Larraulgo Udalak herriaren garapena eta etorkizuna bermatuko dituen herri-proiektu integrala jarri du abian, urtarrilaren 15eko Udalbatzarrean hala erabakita. Sintesian, egitasmo honek hiru oinarri nagusi ditu: herrian aktibitate ekonomikoa indartzea, azpiegitura eta zerbitzu berriak martxan jartzea eta etxebizitza tasatu berriak eraikitzea. Herri-proiektu horren ardatzetako bat Larraulek Eskola propioa izatea da eta horretarako lur-eremua erreserbatzea aurrikusiko da hirigintza plan berrian, Hezkuntzak finkatzen dituen irizpideak kontuan hartuta. Egitasmo hori guztia gauzatzen hasteko Arau Subsidiarioak berritzeko prozesuari ekin dio Udalak.

Etxebizitza aldetik, herriko gazteentzat etxe tasatuak egingo dira. Horretaz gain, herrian gelditu nahi duten guztientzat lur-poltsa sortzea aurrikusi da, bertakoentzat etxebizitza tasatuak ziurtatzeko. Gaur egunean Larraulek 250 biztanle ditu eta epe ertainean 350-400 izatea aurrikusi da. Etorkizun ikuspegi honetan, ordea, herriaren nortasunari sendo eutsiko zaio eta hazkunde hori modu gradualean egingo da.

### **Aktibitate ekonomikoak indartu**

Landa eremuko herri txiki gehienek bezala Larraulgo aktibitate ekonomikoak aldaketa handia izan du azken mende laurdenean. Nekazaritza itzaltzen ari da, aktibitate berriak oso banaka sortu dira eta larrauldar gehienak herritik kanpora doaz lanera. Larraulgo errealitate ekonomiko berriak, ordea, baditu bere indarguneak eta aukera interesgarri asko eskaini litzake, behar bezalako planifikazioa egin eta azpiegitura egokiak jarrita. Zentzu horretan, Udalak ahalegin berezia egingo du Larraulen landa garapenerako egitasmoak Larraulen inplementatzeko eta aktibitate ekonomiko berriak bultzatzeko: negutegiak, nekazaritza ekologikoa, turismoa, merkaratitza txikia, eta baita gainontzeko aktibitate ekonomiko *garbiak* ere.

### **Zerbitzu berriak eta Eskola**

Herriaren garapena eta bizi kalitatea elkarrekin joan beharrekoak dira eta Udalak martxan jarri duen herri-proiektuak Larraulen zerbitzu berriak jartzea aurrikusten du. Zerbitzu berrietako bat 12 urte arteko Eskola zerbitzua da, herri bizitzaren ikuspegitik estrategikoa dena. Bestea Medikuzko zerbitzua da. Gaur egunean Asteasura joan behar izaten dute larrauldarrek horrek dakarren eragozpen guztiarekin: distantziaren aparte gaixotasun egoeran autoa hartu beharra eta abar. Gaur egunean komertziorik ez dago Larraulen eta denda zerbitzua martxan jartzea aurrikusten da, herritarrek faltan botatzen

dutelako eta epe laburrean bideragarri izango delako herriak izango duen hazkundearekin.

Eskola zerbitzuari dagokionez, Larraulgo Udalak apustu sendoa egin du herrian berriro Eskola jartzeko, Larraulek 35 urte luze jasan baititu herrian eskolarik ez izatearen ondorioak. Udala lantzen ari den Arau Subsidiarioetan prestatuta utziko du Eskola berria egiteko lur-zorua, Hezkuntzak eta legeak finkatutako irizpideak kontuan hartuta.

### **Oinarrizko azpiegiturak berritu eta egokitu**

Larraulgo garapena indartzeko egitasmoak oinarrizko azpiegiturak berritu eta egokitzea ere ekarriko du. Nagusienak honako hauek dira: edateko ur sarea, saneamendua, bideak, ume parkea eta komun publikoak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Larraulgo Plan Estrategikoa 2009-2012 oinarrien onespena.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **LARRAULEN HERRI ESKOLA SORTZEKO ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2008-2009 ikasturtea abian jarri dela Larraulen Pello Errota Herri ikastetxeako bi gela desplazatu bidez, 2-6 urte bitarteko umeei zerbitzu hau eskeiniz.

Ikusirik Larraulgo herriak izango dituen beharrei aurre egiteko ikusten dela Eusko Jaurlaritzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskaera egitea Larraulen Herri Eskola propio bat sortzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulen Herri Eskola propio bat sortzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskaera egitea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **FONDO ESTATAL DE INVERSION LOCAL: REAL DECRETO LEY 9/2008 DE 28 DE NOVIEMBRE**

En el Boletín Oficial del Estado de 2 de diciembre de 2008 se publicó el REAL DECRETO-LEY 9/2008 de 28 de noviembre, por el que se crea un Fondo Estatal de Inversión Local y un Fondo Especial del Estado para la Dinamización de la Economía y el Empleo y se aprueban créditos extraordinarios para atender a su financiación.

Siendo adjudicatario el municipio de Larraul con 36.814 euros IVA incluido.

Teniendo en cuenta los dos puntos anteriores, el Ayuntamiento de Larraul, estando presentes cinco de los cinco miembros que componen la Corporación municipal, acuerda por unanimidad:

*Primero:* Respondiendo a la convocatoria que realiza el Estado mediante el Real Decreto Ley 9/2008 de 28 de noviembre creando un Fondo Estatal de Inversión local, el Ayuntamiento de Larraul aprobará el siguiente proyecto:

**PRIMERO: PROYECTO DE ARREGLO DEL FRONTON MUNICIPAL DE LARRAUL**

Trabajos a realizar: Los trabajos a realizar se dividen en dos apartados: uno sería el arreglo del frontón municipal propiamente dicho y el otro sería el acondicionamiento de su entorno. Para ello, habrá que solucionar el problema de las humedades existentes, con un retejado de la cubierta, sustitución de canalones y bajantes, saneamiento de la estructura metálica y pintado. Finalizando las obras con la colocación de cinco bancos mirando hacia el frontón.

Presupuesto: 36.804,98 euros (IVA incluido)

Fecha prevista de adjudicación : 26 de febrero de 2009

Fecha prevista de inicio de ejecución : 30 de marzo de 2009

Fecha prevista de fin de ejecución : 30 de junio de 2009

Previsión de personas a ocupar: 5 personas, de las cuales 1 persona estaría en situación de desempleo.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

GALPARSORO	92,80
KOLDO JAUREGI SARASOLA	186,18

EBA ERKIZIA	2.238,81
FONGUI, S.A.	118,37
KOPIDIN, S.L.	93,65
MANPEL	168,76
GAZTEZULO	18,00
EBAKILAN	261,68
INDARBI	12,99
GIPUAKOAKO URAK,S.A.	374,97
GIPUAKOAKO URAK,S.A.	6.930,21
MANPEL	215,38
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	86,79
SUMINISTROS ELECTRICOS MEGA	20,32
IZFE	374,91
AMONARRIZ ITURGINTZA	48,72
JOXAN ALTUNA	24,76
GIPUZKOAKO URAK, S.A.	2.933,26
LAUKIDE	104,40
KIROLZER	102,50
LASURTEGUI	122,96
28 KANALA	34,80
ARGITU ASESORES	105,68
FERRETERIA BARBE	32,70
ATE INFORMATICA	278,40
GRAFICAS ORIA	139,20
EUSKALTEL	240,02
TELEFONICA	27,87
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	74,50
TELEFONICA	87,91
REPSOLGAS	168,76
REPSOLGAS	497,52
IBERDROLA	207,58
IBERDROLA	74,25
IBERDROLA	19,96
IBERDROLA	208,35
IBERDROLA	19,65
IBERDROLA	219,75
IBERDROLA	169,34

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **17.152,87** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

**HAMARGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA